

# 74R

BIZKAITARRAI  
BIZKAIERAZ  
20n. ZENBAKIA

JORRAILLA  
— 1979 —



URBIA'KO TXABOLEA

---

***Olako eginbearrak artzera,  
oitu zaitte.  
Urte bi igaro baiño len,  
lau laguntza barri.***

Gauzetarako ikuspegi barria, artu-emonak izateko era barria eta geroak gaur eskátzen dauan laguntza-moltzo osotua-goa eskintzea aitatzen dogunean, geuk daukaguzan aurrerapen gurariai egitezko erantzuna emoteko baietza agertzen gagoz.

Esaterako, dana gertu daukagu eperako dirua ezarteko libretak izan daitezcan.

Laguntza barria da ori eta laster emongo doguzan laguntza askoren artean, lenengoa.

Gure laguntzak zabaltze ta aldatze au, Bizkai'ko Aurrezki-Kutxak guztiontzat etorkizun ederrago bat egitea gura dauala adiazoteko bidea izango da.

Etorkizuna, geroa, gaur asi bear dogu.

Biar emen izango da.



**BIZKAI'KO  
AURREZKI KUTXA**

*Geroa, bertan daukagu.*



# **ABERRI - EGUNA**

## **ABERTZALETASUNA**

Laster, dator, urte guztietan lez eta geroago ta obeto, Aberriaren eguna ospatzeko sasoia: Berbizkunde-egun zoragarria.

Izan dira burruka-egun garratzak, ixiltasunean eta bilpurpean egun au ospatzeko urteak, eta orain be Erriaren arerioak ezin ikusi izango dabe egun aundi au,

Euzkadi'ren gauza onik sekula ezin ikusi izaten daben lez, baiña eurak emon daben askatasun apurra naikoa izango da egun au pozez eta bakez igaroteko.

Eta abertzaletasunari eusteko bear-bearreko eguna dogu au:  
Ez da naikoa abertzale izatea zaletasun ori agertu egin bear da.

\* \*

## **AGIRIAN**

Gizonak bere barruko zaletasunak bere antzekoakaz alkartuta ospatu bearra izaten dau eta olako bat da abertzaletasuna be. Gizarterako egiña da gizona.

Orregaitik, guztiz egokia da Aberri-egun onetan euskaldunak alkartzea.

Eta ez gizonak, beste barik, an izan bear dabe ikurrinak eta eraskiñak, an abestiak eta oivak, an euskaldunen biotz berotuak.

Agirian ospatu bear da abertzaletasuna. Ori da zabaltzeko bidea.

\* \*

## **BATZAR AUNDIA**

Batzar aundiak izaten dira, benetan, Aberri-egunak: Eskualde guztietako euskaldunak, berebillez eta autobusez, toki egoki batera batuko dira eta antxe izango dira alkar berotzeko erak, alkar poztuteko ekintzak.

Egia esan, aspaldiko urteetan gure Erriak izan dau eta gaur be ba-dau naikoa samintasun, baiña ez gara erri negartia, erri abeslaria ta poza baiño; eta, naizta gure elburuak lortzetik urrin egon, egun orretan alkarren arteko poza ta bizitasuna bear doguz.

Orretarako izaten dira abestiak eta oivak, orretrako «gora» guztiak, millaka euskaldunen agoak erantzungo dabezan irrintziak eta eupadak.

\* \*

## **ELBURUAK**

Orrelan alkartzen diran euskaldunak, elburuak ondo agertu bear dabez, eta aspaldikoak an izandatu bearko dira.

Zeintzuk diran buru-jabetza osoaren, askatasunaren, bidetik emon diran pausoak.

Zertan diran Naparroa'gaz aspaldion zalantza-antzean agiri diran artu-emonak: Tamala olako egoerea zalantzazkoa izan bearra anaien artean!

Zertan diran Udal-uteskundearen ondorenak, eskuealdeetako Batzarrak eta Euzkadi guztiko Batzar Nagusi alkartua.

Eta zeintzuk diran, Lege zarrak oso-osoa geuganatzeko emon bear doguzen pausuak.

Ez dira illunpean geratuko olako ta antzeko gaiak, an izango dira lorpen orrein billa diarduen gizon aukeratuen azalpenak...

\* \*

## **BAKETSU!**

Izango al da Aberri-egun au, baketsua ta onuratsua, euskaldunak alkartzeko bide egokia, gure erria bizi dala agertzeko eukerea, abertzaletasunaren aurrerapenean jarriko dogun mailla barria.

# EZIKETEA

## UMEAREN JOLASAK

Leengo illean ikusten gencluanez, «jolasa» umearen eskubide bat cia. Ezin dautsogu eskubide au ukatu. Umea eskubide onen bearrizenean aurkitzen cia. Jolasa beretzat bizia lez cia.

Au oiñarriztat arturik, jolasaren garrantzia ulerterreza cia. Ez da ain erreza zein jolas emotea edo zelan jolastu jakitea, batez be leenengo iru urte t'erdizarte. Urte oneik arte, umeak berak be ez clan seriotasun aundiz jolasten. Jostailu bat artu eta naiko errez izten dau bertan bera, beste edozeri eskua botatzeko. Baiña. iru urte edo iru urte t'erditik aurrera ez dau orrela egiten: jolasa beretzat scriotasun aundieneko lana cia.

### JOLASA UMEAREN LANA

Adiñekoontzat, jolasa eta lana gauza ezbardin bi dira. Ez dauka batak besteagaz zer ikusirik. Umearentzat ez da orrela: beretzat lan bakarra jolasa cia. Gauza bakaoitza here benetako izaeran aztertzen eta erabiltzen asten da. Une onetan kontu berezi bat izan bear dogu gauzen egiazko irudi bat lortzen laguntzeko. Sarritan onetaz osa gitxi arduratzen gara. Umea bera be erdi jostallutzat artzen dogu, eta bere eldutasunerako barik norberaren atsegiñeko jolasetan jarduntzen dogu. Au, beraz ez cia bat be zuzena. Gizona bere lanetik biziko cia, baiña umearen bizia eldutasunera eroango daben jolas orreitan dago.

### BESTEEKAZ J OLASEAN

Umea, izatez, berekoia cia. Baiña sasoi onetan besteekazko artuemonetan be asten da: besteekaz batera taldean jolastutzen asten da. Talde barruko jolas legeak oraindik ez dauz argi eta garbi ikusiko, baiña ulertzen asten da. Sasoi ederra, beraz, gizarte barruan ain bearrezko dogun alkarrenganako abegi ona ireksten joatzeko.

Irekaskintza au, bear bada, eskolaurreko ikas-tetxeetan naiko errez emoten jake, egun osoan edo geienean taldean aurkitzen diran ezker. Baiña urte orreitan etxean geratzen diranak kontu apur bat izan bearra dabe, beste ume batzuekaz ibiltzen eta bizitzen ikasi dagien.

### SEME ZAARRENK ETA SEME BAKARRAK

Taldeko jolasetarako joera ez cia neurri bardiñean ume guztiengan agertzen. Naiz eta iru urte t'erditik bost urte t'erdizarte bitartean taldeko

jolasetan jardun, batzuk- besteak baiña atzertuagoak izaten dira onetan be. Ona omen kasu bi: some zaarrenak eta - seme bakarrak.

Oneik ez dabe izan lagunik jolaserako, eta, beraz, sarritan ez dira ain zabal agertzen artuemonetan: berekoiagoak izaten dira.

(jarraituko dau)

**Josu LEGARRETA**

## UDABARRI

Udabarri, udabarri  
zu eltzean gauza danak  
bizirik

Zelaietan bedar lorak  
usain ta guritasunez  
beterik

Zugatz danak orri barriz  
bertan txoriak badabe  
kantarik

Mendietan ardialdrak  
euren arte bildotzak bai  
triskarik

Bideetan maitailleak  
bagi argiz irri barrez  
maiterik

Agura ta atso zarrak  
etxe ondoko euskitara  
pozpozik

Dana bizi, dana alai  
badau eder udabarririk  
zoririk

Iraun gugaz aro alai  
danetan ederren orrek  
lirañik

Gora aintza zero goitan  
Jainko guztiz altsuari  
bioztik

**GALLASTEGI'tar Kenedi'k**

## GALLURRA

Mendiaren gaña amets egin dot.  
Arranoak dabiltz goian  
Lurra, zugatz, gorago arkaitzak...  
Egazu ba'nei ganian.

Euzkadiko lurraren ederra...!  
Gallurretan., barriz, ames...  
Elkarri eupaka dagoz gañak.  
gorantz eiteko joranez.

Mendi barnean jaio nintzan,  
ama lurraren oiñian,  
beti, eguzki billa nenbillen  
egun sentia zanian.

Euskal baratzak, euskal mendiak,  
maitatu alan nenkusan;  
Euzkadiko edertasunean  
nere gogoia batu zan.

Lur, solo, ibaiak eder ziran,  
dardar negian bidean;  
noiz, elduko gain argiTa  
eguzkiaren antzean.

Ibai ondoan, sarri, enbata,  
Ni a urratu ezinik.  
Beti gañera igoteko garren  
euskal lurrez bat eginik.

Mendi egalez lañoak narraz,  
indarka nabil uxatzen...  
biotz garrak ez dau nai ikusi  
aritz lerdetik zapaltzen.

Negua da, oraindik, euritan.  
Narras-marras denporala.  
Gaillurrera igon nai mutillak  
ta uretik dator kresala.

Indarka dabil nere gogoia  
laño artean gora,  
mendi gaña eguzkitan dago,  
poza datorkit gogora.

Nere gaba ta nere goiza  
egunsentian argitu...  
illuna joan, lañoak urratuz  
olermena indarbarritu.

Aurrean dakuts mendi gallurra  
lur maitasun, eriotan,  
ain zara eder Euskalerrria  
garrezko zorabiotan.

Mendi gañean zelaia dago,  
egazka doa aizea,  
urregorrizko argia, goxo,  
gogoia daukat ernea.

Euzkadi zakust olermenetan  
zeruaren garraziaz,  
Aberririk ederrena dago  
maite miliaren graziaz.

Eguzkiak urrea dario,  
izadi oro argitan,  
gora goraka dabil gogoia  
olerkiaren bizitan.

Lañoak, berez, deuseztu dituk  
eguzkia etorkeran,  
esna adi gogoaren barrena,  
olermena biztukeran.

Geiago ez dok lorik egingo  
olerkiaren sormena,  
ederregia duk izadia  
geldi izteko oermena.

Mendi gaña maitagarria duk  
olerki gallur bezela,  
guztia dago urre gorritan  
argia irunzten dabela.

Nere olermen, eder-zalea,  
ots egiok argiari,  
beti, mendi gañez bizitzeko  
ots, maite-min ederrari.

Paulin

## BITXORI MARGOLARIA

Margo agerpena ikertu neban  
San Nicolas en aurrian  
atzo gabian, ta ondiño daukat  
edertasuna, goguan.

\* \*

Edertzalienen begi orrekaz  
beituten dozu geure lurra,  
ta gero oyalan itxiten dozuz  
zeure biotzaren zatiak

Lauki bakotxa, bere marguaz,  
da urre-gorritzko pitxia  
dana loratsu, dana udabarri,  
geure begien aurrian.

x

Euzko basterrak: Lemona, Gamiz,  
Mundaka, Dima, Sukarrieta,  
itxas-baketsu, kayen onduan,  
ikusten dogu itxasua.

\*

Indusi-atxak, abaden etxe,  
Bernagoitia'ko torria...  
So luzaroan... ezin aldendu  
lauki batetik bestera.

\* \* \*

Eskarrik asko, Bitxori, zeuri,  
Ainbeste lauki ederrakaz  
ikusten dogu, negua izanik,  
Euzkadi'ren udabarria.

UTARSUS

# **AÑOBEROS GOTZAIN AGURGARRIARI**

(Ainbat ningotz ta garraztasunen ordañez)

Zuzentasuna  
maite duanak  
ez dauka zetan lotsatu;  
len euskalduna  
siñismenduna,  
orain ostera ukatu.  
Nor erruduna,  
goi-maitasuna  
gugandik duna aldendu?  
bakotxa berak  
erantzun begi,  
biotz barrua sakonduz.

\* \* \*

Erroman dogu  
guk Aita Santu  
Kristo Jaunan ordezkari;  
ak emon ditu,  
gauzak argituz,  
irakatsiak ugari;  
baña Españan,  
gure Gotzañak  
bildur dirala dirudi,  
emonik sarri  
artaldeari  
bedar liorra janari.

\* \* \*

Gaur egunetan  
toki askotan  
zuzentasuna nagosi;  
faltzokeritan  
euskal erritan  
eziñ giñeitekez asi;  
bene-benetan  
barne muñetan  
guzur zalea ezetsi,  
espetxeetan

sarri izan arren  
zerua daigun merezi.

\* \* \*

Protestarako  
len egindako  
iru bertsotan aztertu,  
doguz lenauko  
biotz barruko  
garraztasunak egertuz;  
oraintsu baña  
Gure Gotzañak  
neke samiñak autortuz,  
zintzo ta garbi  
egin du argi  
egi beraren amorruz.

\* \* \*

Gaur egunean  
siñismenean  
loka dogu Euskalerrri;  
zorionean  
eldu ziñean  
Añoberos agurgarri;  
ordutik ona  
ze zoriona!  
bizkaitarrantzat pozgarri;  
zabaldu gendun  
idatzi zendun  
zure idazkia ugari.

\* \* \*

Bera zalata  
ze zalaparta  
zabaldu izan zan Españan;  
gaur egunetan

toki danetan  
ezagun dogu Gotzaña;  
bere-bereak  
diran semeak  
maiteko dabe Artzaña,  
bete naiean  
maitasunean  
Kristoren lege bikaiña.

\* \* \*

Gotzain modura  
gaur zenbat gura  
zorion ugari naiko;  
eleiz-gizonen  
ume ta aitonen  
zar eta gazten arteko,  
zorion utsa,  
nire biotza  
datorkizu eskeintzeko,  
artu gagizuz,  
ta itxi eiguzu  
agertzen esker oneko.

\* \* \*

Eskerrikasko  
emon bearko  
Añoberos Gotzañari;  
gure lenauko  
guraso naikok  
emon dautso negarrari,  
ikusirikan  
gaurko burrukan  
Gotzaña gure gidari;  
bere menpean,  
batasunean,

**EUTSI BETI EGIARI.**

**L E R T I B E**



# ALKAR - IZKETAK



## ROTAETXE'TAR IMANOL

**EUSKERAZALEAK** taldean gogotsu ta gartsu lan egin eban Imanol Rotaetxe'k, baiña bere egunen azkena eldu jakon igazko urtearen azkenetan. Laguntzaille ta lagille on bat joan jaku. Goian bego.

Bere jarraibideak adoretuko gaitu gure euskerearen eta euskalkien alde lan egiteko.

## LIBURU EGOKIA

Izkuntza bat, edozein izkuntza, ikasteko biderik egokiena alkar-izketak dira eta lenengo ille batzutan beintzat ez da besterik ezer be egin bear alkar-izketak baiño.

Alkar-izketak bear dan lez eraztea ez da, gero, txantxetako lana. Lan gatxa ta benetako trebetasuna bear dauana da.

Liburutxu egoki au 1975'ean argitaratua da eta orain argitalpen barria ta apainagoa egin dabe **EUSKERAZALEAK**, sarrera bat dauko lenengo, erderaz. Euskaldun barrientzat edo euskerea pizka bat itzita daukenentzat da izan be, eta an agertzen dau alkar-izketeak izkuntza ondo ikasteko daukan garrantzia.

## OSAGARRI

Ez da gramatika txiki bat, edozein gramatikarentzat osagarria da eta berba egiteko erreztasuna

artzeko laguntasuna emoten dau.

Alkar-izketak bizkaiera argi, erriko eta errezean idatziak dira eta etxean naiz kalean egunero erabilten diran gaiak darabiltz.

Beti aldean erabili bearreko liburua da eta egunean ordu lauren bat ikasten egin ezker, arin ikasi lei euskerea bide onetan sendo ekinda.

## AURRE-OARRAK

Itz-aurrearen urrengo aurre-oar labur eta egokiak dakarz: **Abedea**, izkiak zelan esan, **azentoa**, **kuntzea** edo ar-eme arazoa, i ta zu'ren arazoa, **jokerea**. Dana labur-labur eta orrialde baten.

## GAIK

Alkar-izketa oneitarako gaiak guztiz ondo aukeratuak eta egunero bear-bearreko diranak dira: **Lenengo** agurra zelan egin, gero 31 gai: **Norbera** ta sendia, eguneroko zeregiña, eguna asten danean, **erosketak**, **bazkaria** gertatzen, **aldi zatiketea**, **eguraldia**, **diru-etxea**, **akaitetxea**, **jostundegian**, **ostikoketeldi** bat, **zina**, **mus-jokoa**, **trenean**, **ostatuan**, **eztegua**, **idazkia**, **Bilbao** uria ikusten, **Gernika**'ko **zugatza**, **oporraldia**, **izparringia**, **osagillearen** etxean, **azkeneko** alkar-izketa.

Ona emen azkenenko alkar-izketea:

—Agur! jauna.

—Agur! zeuri be.

Au poz aundia zu barriro ikustean!

Neu be asko poztuten naz, baiña... nor zara zu?

—Ez etc nozu gogoratzen?

—Egitan, ez clot zure gomutarik.

Eziña da ori!... Ea: orain urte bi dirala, ementxe, zure albotik igarotean, auxe itandu zeustan: «Euskeraz itzegiten ba-dakizu?» eta nik: «Ez jauna ez dakit itzegiten» erantzun neutzun. Orduan, zuk esan zeustan: «Zuk eta euskeraz ez dakizuen cuskotar guztiak ikasi egin bear dozue». Ondoren, euskera ikasteko esku-idaztitzo au emon zeustan. Orain nitaz gogoratzen etc zara?

Jakiña! Bai orixe!... Orain dan-dana gogoratzen dot, bai...: zu euskeradun utsa zifian, zure gura-

soak euskeraz irakatsi ez eutzuelako. Eta gaur egunean, ba-dakizu?

—Bai jauna, ba-dakit, eta batez be itzegiten clot... euskeldun barri bat naz!

—Ori ondo! Baiña... zelan ikasi al izan dozu ba, orren arin?

—Errez: gabeko ikastolara astean iru aldiz joaten nintzan. Bide batez, etxean, neuk bakarrik, zure esku-idaztitzoaren alkarizketak ikasten nebazan. Igande ta jai-egun guztietan baserri batera joaten nintzan. An, izketak arretaz entzuten nebazan, eta entzundakoak barriro esan. Orretara ikasi dot euskeraz itzegiten.

Arrigarria cia! Egitan, «gura izatea al izatea da». Eta emendik aurrera, zer egingo dozu?

—Baserrian ezagutu neban neskatil on ta polit bategaz, laster, ezkondu egingo naz. Seme-alaba asko izango doguz, Jaungoikoak gura ba'dau, ta beti euskeraz itzegingo dogu.

Zorionekoak zuek! Euskal-sencli barri bat, gure abenclak iraun dagian! —Eta orretara, zuk esan zeustan lez: «Oraindño dogun altxor eder au **EZ GALDU**: euskera gure izkuntza maitea».

—Bai, ene adizkide laztana olantxe izango da. Zorion andia opa dautsut da. Zorion andia biotzbiotzez.

—Eskarrik asko, jauna. Orain lanera joan bear naz. Agur jauna!

—Agur nine adizkide zintzoa! Etorri nai dozunean. Ementxe egongo naz eta ez eizu inoizbe aitzu au: **zuk eta euskaldun guztiok**, beti euskeraz itz egin bear dozue.



ALKAR-IZKETA

# EUROPA'RAKO

# BIDEA

## ABERRI TXIKIAI ZER?

Urteak dira izan be onetzaz AGUR asterokoan OSOTU DAGIGUN EUROPA'ren izen-buruaz idatzi nebala.

1972'garren urtea zan, ain zuzen.

Ordutik ona euria ta edurra. ugari. Ori ta be, berein gauza konpontzeke, osotzeke. Gitxi be gitxi aurreratu dogu.

Igaz be EUROPA'KO ONU-BATZARRA'tzaz zerbait esan neban ZER• aldizkari ontan.

Europa'ko laterri orok gero ta Europa batuago bat iriztea nai leukee.

Orretara aspaldi danik euren barne-muiñoen indar bereziak al giñoan alkartu nairik daragoie.

Oraintsu ta C.E.E. edo Europa'ko Diru-oin batzarratzaz mugatu oi nazala, beste iru laterri dakusguz ortara doazela: Iberia'ko España ta Portugal batetik eta len baten ospetsua izandako Grezia bestetik.

Dana ondo benetan!

Baiña ollarrak gangarra tente! Edo esaera zarrak dirauskunez «Lengo lepotik burua». Arrain aundiak beti txikia iruntsi.

Erri ta aberri txiki oneikaz zer orduan?

Or untzea! Or kozka zorrotza! Ta buru aiña aburu ludi ontan dakusgunez, oztopoa zoztorrez beteriko zeregiña danik ezin uka.

\* \*

## KONTUAN ARTU BEAR DIRA

Ekonomi-aldetik ikuspegi obeak ikustatzeko urte batzuk itxaron bearko doguz.

Eta erriketak edo politikak alkartzeko, laterri bakoitzaren txindiak bateratzeko, gudaroste bakar batera jotzeko, muga gabeko Europa amesgarri bat lortzeko, eta oroz gain Europa bera osotu oi daben enda, kultura, erri-guztien mintzaerak, oiturak eta abar jagotzeko, ze-nolako jokabide onurakorrak dakusguz?

Or be eragozpen ugariak ziñez!

Laterri ospetsuak darabillezan joko naskagarriaz, nabarmandu guraz, erri txikien nortasunari ia jaramonik be ez dagioe egiten.

Au negargarria izanik, egi biribilla dogu beraz.

Erri ta aberri txikiak, euren ele ta ekanduen altxor bereziak, beiñen.ak legez, eurentzako oiñarri lez, oneik batu ta indartu bear leukeez Europa barriztatu baten.

Onetzaz be Letona pasiotar idazle jatorrak igazko urtarrilean gure ZER illeroko ontan jokatibide egokiak adierazo euskuzan.

\* \*

## ARAUDI TA GUZTI

Europa'ra sartu bearra dogu bai, baiña gure sort-araudia, estatutoa, osorik, moztu barik daro-agula.

Uste osoa izan dagigun Iñigo Agirre ta beste aldunengan. Eurak lez, gizaki bakoitzak lenen eta bein, bere nortasuna osotu bear dauala aldeztu. oi dogu. Gero sendiarena, ondoren erriarena ta aberriarena.

Onelan, beetik gora beti jokatuz, eta ez alderantziz, naiz legerri txiki naiz aundikoak izan, guztioen naimenak baturik errezago izango litza-kegu elburu zoragarri ta goi-maillako ori lortzea; ots, Europa batu batera alkaturik jotzea.

Gure arazorik bikaiñenatarikoa ba, gure erkideak onetara zuzentzea izan daitela.

Dalako batu ori ez daitela iñola ere txiki-aundiren naste bat izan.

Bestalde, danok pozarren osoturiko Europa jator bat. Gurtioen izapide, eskubide ta bete-bearrak aldeztu dagian Laterri Nagusi Orokor bat.



# JABETZA TA URRUTIKUSKIÑA

## ARDURADUN-TALDEA

Euzkadi'ko erki bakoitxa begiraten ba'dogu, ames-elburu bikaiña izango litzake erki bakoitxak teleikuskin-ordu bereziak izatea. Alan be teleikuskiñaren egitarauak bardiñak edo bardin samarrak izan leitekez ziurkiro.

Itaundu geinke: Nor izango litzakc arduradun beñena errialdeetako urritikuskiñetan? Euskal Batzar Orokorraren ardutapean aurkitzen dan bat, noski.

Arduradun bakar edo talde orren gain joango litzake sorreran bear diran txindi ugariak lortzea ta beste asierako eragozpen guztiak gaindurik, gure urrutikuskiñaren urrats lenenak bide egokian jartzea.

Arduradun edo talde onetan eskua artu bearra izango leukeela deritxogu teleikuskiñaren gaietan. nabarmen eta jakintsuenak, zein alderdi batekoak izan zein beste alderdi bestelangokoak: gizarte, erriketa ta abarretan goi-maillako notiñakaz osoturiko sail garrantzitsuak egokiturik ain zuzen. Olan Euskal Batzar Orokorra osotuten daben alderdi guztiak nolabait parte artu al izango eben, eta ez alderdi gorengo batzuk bakarrik.

\* \* \*

## TXINDI-BATZEA

Diru-batze egokienetariakoak izan leitekez iragarbideko zabalkunde guztiak oparo emotea: iragarki asko, kirol-egitarauak eta abar adierazoz batetik, eta egitarau mueta askotarikoak saltzeaz lortu daitekezan txanpon ugariak cskuratzeaz bestetik.

Orrez gain, konturatu bear gara Errialdeetako teleikuskiña T.V.E.'ren ardurapean jarraituko ba'lebe, onengandik jadetsi bear izango leukez bearrezkoak jakozan .diru-etorbideak; baiña ez askatasunez edo autonomiaz jokatzekotan. Orduan, diruok berak bakarrik lortu bearra izango leuke.


\* } \*

## ERALGI-BEARREN KOPURUA

Oraindiño eralketaren neurria erabagi barik dago, Iñigo Agirre'k dirauskunez.

«Telenorte» deritxogunak 1.500 lauerleko minutuko eralgiten dauz. España'ko «Prado del Rey»k ostera minutuko 30.000 pezeta bear ditu.

Alde izugarria mutillak!



Gure eralgi-bearra edo presupuestoa, «Telenorte»ren mailla-ingurukoa izanitzake. Lendik daukaguzan lengai edo izagai guztiak alik ondoen baliatuz, egitan.

\* \* \*

## ZELAKO EGITARAUAK

Onena litzake guk geuk gertatu, ta ez iñondik erosi edo ekarri, bearrezkoak jakuzan egitarauak.

Oneik izango litzakez jakin-crazle ta barri-emailleak; kultura, ostikopelota, an.tzerki, pelota-joko, arrijasotzaille ta abarrekoak, bai euskeraz ta baita erderaz be erabilliak.

Geienbaten euskerazko ta erdcrazko egitarau bardiñak; kanal bi ezbardinetatik adierazoak.

\* \* \*

## TELEIKUSKIN-ESKOLEA

Gipuzkoa'ko Aldundia urte batzutatik ona cuskal-tleikuskin-eskola bat irasteko asmo bizi az dabil.

Oraingoz tokia ta langla-aretoak aukeratu ezeze, tekniko batzuk be asierako lanetarako ezarri ditu.

Euren lana, irudiak, mintzo ta soiñuak, tresnadurak, egiteak eta abar, aldiz antolatzea litzake.

Au da: g-zi onetan tekniko naiz jakitun izango diranak, era onenean, gertatu ta eratzea.

Eralgi-bearra 25 milloi pezetatik 35 milloiraiñokoa izango litzake, gai arruntak erabiltzekotan.

Ortik gorakoak, gai baliotsuak izan ezker. Etxea, areto ta guzti kontuan artu gabe.

Beste urteroko eralketa bat, bertako langilleak ordaintzea izango litzakenez, diru onei geitu geinkionez, urtero ba'da be, beste lau edo bost milloi lauerleko.

Azkenez, erabagi barik dago oraindiño, ia eralketa oneik Gipuzkoa'ko jendearen gain bakarrik ala Euzkadi osoarengo notiñen gain joango litzakezan.

Usteak ustel urtengo? Baikoarrak izan gaitez.

**ARREGI'tar Josu'k**

# KIRIKIÑO, OLE

Nainundik begiz jo, Kirikiño beti yaku ikasgarri; argia ta beroa dakarskuz bere gizantz izugarriak. Igaz, aren eungarren jaiotz-urte urrena ospatu gendun, zerbait egiñaz: omenaldia Mañari'n, ari buruzko lanak eguneroko ta aldizkarietan, or-emen itzaldiak, teatru-jaiak, *Abarrak* barriz argitaratu, eta gaiñerakoak. Ezta etsi-etsian —konforme— geldutzeko beste be, baiña egin alean Ian egin ezkeru, nok guri geiago eskatu? Ez gaitez, orraitino, egiñagaz asetarik ereiñotz gaiñean nasai jarrita egon. Aurrera jo bearra dogu, leiatsu ta oztargi.

Kirikiño ta ipuinlari adierazpen adierazpen bardin samarrak doguz sarri. Alan be, orretan baiño geiago jarduna da. Igaz argitara emon genduan *Abarrak* liburu mardulean ikusi zeinkenez, ainbat gai ta auzi erabilli ebazan Kirikiño'k, beti sakon ta dotore, errikoi ta bizitasunez gaiñezka. Erri jakin-zaleari danetik egokitu ta emon eutsan janari egosi erreza. Aurretikoak itxitako erentzi bikaiña —abesti, elezar, ipuin, ilarri, baserri ta itxasobizitzan datzan euskal gogoa— erriaren kontzientzi barruan dardarazo nai eban. Eta orretan saiatu zan ainbat gai ta gauzari ekiñez, erriak bere-berea ebana maitatzen eta zaintzen ikasi egian.

Ortarako igarle doaiz dagerkigu. Giza-kondaira zarean, momentu larrietan, gerra bat irabaztean edo galtzean, it edo biziko une estuetan, mastiak batu ta soloak goldatzean, bertsolariak, igarleak jagi oi ziran —gure artean be bai—, negar eresi edo garai-kantak sanez. Kirikiño'k ba-ekian au, ta sasoi atako euskal urretxindor zan Enbeita'tar Kepa'gaz batera, negar kantak eta oi-ots alaituak abestu euskuzan; Euskalerra ta euskeraren zoria ilteko arian ikusten zitun, eta berteolarien dela beti be erriaren antsia izan dala jakiniik, olerkari senez goi-argitua, bertso ta ahapaldi kartsuak aragitu euskuzan sarri. Or dozu, irakurle, aitaturiko *Abarrak* liburuan olako mordoska bat.

Baiña ba-dira oindiño beste batzuk liburu ortan sartu bageak. Eta azken-argitalpenean sartu-etzok aitatu nai ditut emen. Gaur goizean, ain zuzen be, urte askotxo dirala argitara emoniko erri-abesti liburuxka bat, 144 orrialdekoa, eskuratu dot. Zazpi sailletan banaturik dago: 1) *Ereserkiak*; 2) *Abesti aberkoiak*; 3) *Maitasun abestiak*; 4) *Siaska abestiak*; 5) *Uskutrz-abestiak*; 6) *Gabon abestiak*, eta 7) *Erri-abestiak*. Eta eurotatik amazazpik Bustintza abizena daroe azpian. Eta amazazpi kanta oneitan oso liriku agertzen yaku Kirikiño.

Lanengoa, «Jagi jagi» da; gure arrantzale zarrak beñola olandesai gogor egin bear izan eutsen itxasoan. Ordukoa dogu kanta au:

«Jeiki, jeiki, etxenkoak;  
argia da zabala;  
itxasoti mintzatzen da  
zilarrezko trunpeta».

Kirikiño'k aire ta neurri bardiñez osotu eban berea. Laster urreratuz doan egun zoragarri bat dakus; eta diño:

«Sorkaldetik agiri da  
argi gozo biguna.  
Bere aurrean, bildurtuta,  
igesi dua illuna».

Aberkoiaren artean ba-ditu guztiz politak. Bere lurraldeak itxita ona datorrenari diñotsa, Zubero'ko eres-kanta bati letrea jarriaz:

«Zetara ator ona?  
Ango lur ederrak  
gogoz landu egixak,  
eta jangok ondo,  
ta alan i ta ni  
adiskide beti.»

Eta beste au aberri maiteari eskiña:

«Lora polita ontzian  
begiratzen dodanian,  
orduan zaukot, ene maitia,  
neure goguan.  
Txori polita kaiolan  
begiratzen dodanian,  
ai!, orduantxe zaukot, maitia,  
neure goguan».

Beste zazpi oneik be, «Aitonaren esana», «Zaureztat bizitza», «Gertu gagoz», «Goiko mendian», «Anton Aizkorri», «Txori urretxindorra» ta «Txori urretxindorra udan», bardiñak dira, samur sentikorrek.

Ibiltari zan Kirikiño; domeka ta jaietan, beste zeregin barik ba'egoan beintzat, ara naiz ona ibillirik, euskal lurraldean edertasunez asetu nai izaten eban bere barrena. Udaldian batez be bere errira joan oi zan eta ondo ekizan ango mendi-muño, errekondu ta aitzarteak. Eta berak barruan eroanaz kutsutu nai ebazan besteak be. «Mendian axia» asten dan poeman onela diño:

«Mendian axia/garbi ta ederra,  
bertan indartuten/da sendoro bularra;  
antxe dozu, gazte, /osasun betia:  
izan zaite, ba, beti/mendigoxalia».

Maite-kantaetan ederto egiña dau bat, Zubero-eresiz abestua, ta geroago bere emazte izan zan Bustintza'tar Basili'ri eskiña:

# RKARI

«Neskatilla bat bai-dot/maite biotzetik,  
alkarren maite gara/biok aspalditik.  
Bere on izatiaz/nauko zoraturik;  
bardiñik eztot uste/iñun be dagonik».

Elizkoietan be zentzunez egiñak ditu, «Ogi zerutik» oso zarra da gure eliz-abesti txortetan. Kirikiño'k ahapaldi barri batzuk ipiñi eutsozan, berak asmauta. Ona bat:

«Eztot, ez, begiz/nik ikusten,  
ziñetsi, barriz,/bai, ziñesten,  
Oteunan dala,/Josu emen,  
geu onetsi ta/maitatuten».

«Abestu biar dogu» asten dana Andra Maria'ri egiña da. Ta «Agur, Josu'ren Ama» asten dana be berak atondua da, batez be 1909'an Euskalerritik Lourdes'era egin zan peregrinaziñoan abestutakoa.

Euskal oituran zale genduan. Eta Bilbao'ko Euzkeltzale-Bazkunak zerbait otzituaz joian Santa Ageda oitura barriztu nai izan ebanean, olako eskabideetan kanta oi dan letrea berak osotu eban, gero ainbat aldiz abestu izan dan «Aintzaldu daigun Agate deuna» asten dana noski. San Juan bezperan be, or-emen sua bizturik, sekulako

**kantak erabilten doguz, «Urta, urta» abestuz solo-baratz, zelai-beresietako sorgiñak uxatu naiez. Kirikiño'k onela :**

«DeunJon'az sorgin, el txo ta zorri  
guztiak dira erretan,  
soluetako landara onak  
garbi geratu daitezcan.  
Gora, gora, gora garbitasuna!  
Aupa, bizkor egin suari bira!  
Ujuju!  
Deun-Jon'etara guaz gu.»

**Eta, azkenean, norbaitek «Txeru kartzelan dago» abestu dautso, ta bertatik iduri bat etorri yako aurrera. Norena ete? Gorputz izatea emon eutsonarena ala illun ekusan lur-amarena? Zein bata zein bestea biotzez maite ditu, ta areik kartzelan ikusterakoan barru-ikutua diño:**

«Arna, zeu barik larri  
nago neu benetan!  
erdu ta poztu naizu  
zeure besoetan.  
Ama!  
Triskan egizu, neskatotxua,  
mutikotxua, lai-rai-lon.»

**Auxe dogu Kirikiño'ren biotza, bertso samurretan ustua.**

**A. ONAINDIA**

# M A I T A S U N      K A B I A

Euzkadi, nor zara gizadian...?  
Gizon askoren miña,  
aitarentzat seme gaisoa letz  
nere barneko samiña.

Zure min artean jaiotzen nintzan,  
erru gabe zapalduta,  
ama kateipean ezagutu nun  
leoi-tzarrak joputula.

Indarkeriz zapatua zara.  
Gosez egoan etsaia,  
ta askatasuna kendu eutsuen...  
Odol edale nausia...!

Zure kateien ortzak ikutu  
eutsen nere odolari,  
miña daukat barnean sartuta  
otska zuzentasunari.

Españak, gaitzez, ez dau entzun nai  
nai ta Españak il nai izan arren  
Euzkadiren dea-darrik,

neurrigabeko zapalkeria  
gorrotogarrri dalarik.

Guzurrez zapaldu zinduezan  
ezpatakeri nabarmenez,  
odoletan daukazu bizia,  
etzara ilko lerrenez.

Gautxori iduri, odolzaleok,  
euzko odola xurgatuz,  
Euzkadiren biziza il nai leuke  
euren bizia sendatuz.

Baña, noiz arte, jarraituko duk  
gure erria zapaldutzen...  
alderdi danetik gorroto bizia  
itzi nai ezta bizitzen.

Zuzentasun-zal dan erria,  
besterik ez da Euzkadi,  
Baña zergatik, galdezka nago,  
beti, euzkotarren aurka,

Eun da ogetemeretzi urtez  
miñez josita negarrez,  
punturik ez da makillatu-ge  
Euzkadiren zoritxarrez.

Gizontasuna ta sinismena  
euskaldun sustaiaik ziran  
egia zan zure egarria  
urrezko itzak bait-liran.

Zure gizontasuna apurtu,  
zuri sinismena kendu,  
irainez ta laidoz nai-izan eben  
Euskalerrria deseindu.

Beti, zure aurka gaurdaiñoan,  
leoiak urrumaraka,  
euskotar bildots errigabeak  
etsai erpetan dardaraka.

Baña zergatik, galdezka nago,  
beti, euzkotarren aurka,

erri onena birrindu nairik,  
lotsa gaberik indarka.

Itzez, gogorki, mindu zaitue  
Euskalerrriko jendea,  
zuen bizitza lotsatu nairik...  
deabruzko jrdutza.

Kristau izena artzen eben aoz,  
batzuk atzipetuteko,  
kristau indarra loitzen eben  
sinismena ondatzeko.

Euzkotarra, or, ustel artean  
biztu egizu argia,  
gorroto-ge, Euzkadi izan dedin  
askatasunez betia.

Euzkadi, maite izan zindudazan  
neke aundien azpian,  
gaurtik aurrera maite nai zaitut  
askatasun gar bizian.

**EGIEDER**

# **BILBO'KO ALKATE BARRIARI ESKUTITZA**

Endore Jauna:

Idazlan au argitara emon ordurako, ezta kigu ondiño zein izango dan Bizkai'ko uri-buruko alkate barria, baña bardin da, zuri Bilbo'ko endore izateko aurkeztuten zaran orri idazten dautzut apaltasun osoaz eta asmo batzuk emotera ausartuko naz, ez dira beste munduko gauzak, ba dakit beste arazo batzuk onek baña aundiagoak eukiko dozuzala baña ementxe dozuz neureak:

I.—Zu alkate barri, ziur asko politiko talde batekoa izango zara, ez datik zeñekoa, baña arren zure «leku» barri orretan, Erriaren (Bilbo'ko) arazoak euki bear dozuz gogoan, ez zure taldekoak.

II.—Bilbo Euskalerra da. Beraz Bilbo'ko izkuntza euskerea izan bear da, orain arte emengo udaletxetan ez da ezer egin euskeraren alde. Ia zuk zerbait egiten dozun! Esate baterako:

Udaletxean erabiltzen diran agiri guztiak euskeraz eta erderaz jarri'au da, elebitasuna\* lortu udaletxe

barruan. Udaletxean sartzen divan langille barriak euskeraz jakin bear dabe.

Bilbo'ko kale guztien izenak euskeratu, baña ondo. Udaletxeak antolatzen dauazan jai guztietan euskerari merezi dauan tokia emon eta abar eta abar...

III.—Kale batzuk sasoi batean euki ebezan izenak barriz jartzea, adibidez: Enparantza Barria, «Circular» Enparantza, «Autonomia» kalea, Sabino Arana'ren Etorbidea\*, Berastegi txaideia" ta abar... Gañera orain daukiezan izenak gorrotoa sartzeko besterik ez dira, euskaldunen areririk aundienak izandakoak diva geienak eta...

IV.—Gure auzuneak ezagutzen al dozuz? Ikusi al dozuz Errekaldeko kaleak eta Otxarkoagakoak, eta etxe batzuk zelan eregi dabezan kontaratu al zara? Benetan, ez dago eskubiderik! Pertsonak bizitzeko baño. konejuak gordetzeko dirala emoten dabe.

V.—Eguraldi ona danean gure zarsarituak nova urtengo dabe? Baratzarik ere ez dogu. Sasoi batean Artxanclara joaten ziran «funieularrean» edo «mendi-bultzian», barba orain nora joango etc dira? Ia «funicularra» konpontzen dozun. Au idazten Pa-gola beste arazo bat azaldu yat burdra. Lezama ta Sandikako bultziak noiz elduko dira Kalzadas'ko Geltokiraño? Tren ori bearrezkoa dogu bilbotarrok jai-egunetan arnas pixka bat artzeko, ta langille ta ikasle askok ere bearrezkoa dabe bultzi au egunero.

VI.—Bilbo'n oso baratz gitxi dogu, onek ugaritzea, ba-dakit ez dala gauza erreza, baña zergaitik ez, kale guztietan zugaitz batzuk sartu, Neguri'n eta beste erri askotan dagozan lez? Begira, alboan dozun Ondarrabi'ko kale bat.

VII.—Uri-bazterretara ba zoaz berealaxe saskarie letxe «basureroak» aurkituko dozuz, ertzaiñak emen bai dabela Ian aundi bat egiteko: leku onek zaindu ta zikinkeriak botatzen dabenei, isun\* bat jarri, emen dago zaindu bearra ta ez «zona azulean». Eta kutsadura\* kentzeko zer egingo dozu? Aolku\* bat emongo dautzut gai oneri buruz: Lenengoz egin bear dozuna auxe da, TUGBSA'ko «autobus» guztien «tubo de eseapeak» konpondu bear dozuz, autobus onek, urdiñak eta gorriak, berebil guztiak baño geiago zikintzen dabe gure arnasarako bear dogun aizea.

Ba daukadaz beste gauza batzuk geiago ondiño, baña gurkoz naiko da. Gogoan izan zuk artuko dozun Ian barri ori oso gogorra izango dala, zori ona opa dautzut. Agur.



**BILBON BIZI DAN EUSKALDUN BARRI BAT**

# GAUZA

# LABURRAK

1977'ko ekainaren 15'go auteskundetari aurkeztu ziran talde geienak euren zabalkundea\* zgitzeko ikurriña eroaten eben, naiz eta bandera gorri baten ondoan ipiñi. Aurten-goetan eta PSOE'k esatebaterako ainbat berebil erabili ditu zabalkundea egiteko, berebil batkoitzean bandera gorri bat edo bi ikusi doguz, baña naiz eta amar berebil batera joan ikurrin bat be ez zan ikusi. Ederto mutillak, zorionak! Beintzat oraingo oneitan garbi agiri zarie, olan erriak obeto jakin dau nori autarkia emon.

Joan diran autoskundeakaz jarraitzen dogu, talde guztiak euren zabalkundea egin eben ormetan, irratietan, eta euren itzaldiak emoten. Itzaldi oneitan geienak beste talde baten aurka ziarduen\*, eta ori benetan ez yakun gustau, batez ere, Euskalerriko talde biren artean zanean.

Ezker-aldeko talde batek egindako «comics» bateau gure Lendakari izandako Joseba Andoni'ri «traidor» esatea ikusi dogu. Nori eta Joseba A. Agiire'ri? Zer eta «traidor» «Comic» ori egin dauna edo zoro bat da edo bere asmoa auskaldunen artean asarrea ereintzea baño ezta. Onenlako gauzak egiten dabezan batzuk, abertzaleak dirala esango dabe, baña benetan orren abertzaletasuna eztozu inñundik ikusten. Obe dozue bein betiko argi berba egitea ta erriaren aurrean zuen norabidea» zein dan azaltzea.

Amaitzeko, orrelako «abertzaleak» eta kanpoko arerioak, anaiak.

\* \* \*

Bilbo'ko lantoki aundi bateko Euskal-sindikato batek egindako agiri bat ikusi dogu, lantoki ortako itun edo «convenio» barria dala ta. Agiri onek bost orrialde ebazan eta dan danak erderaz egozan, ergelkeri\* bi izan ezik.

Ergelkeri bi onek ba dakizue zeintzuk ziran? Orrialde bateko izenburuan «Egon lasai» itzak agertzen ziran e•a idazlan guztia erderaz.

Bigarrena, «Danok batera aurrera» au amaieran agertzen zan.

Zer deritxozu irakurle? Niri «folklore» utsa. Euskereak ori baño geiago merezi dau.

ZANGRONIZ

## IZTEGIA

<i>Endore</i>	=	Alcalde
<i>Udaletxe</i>	=	ayuntamiento
<i>Elebitasun</i>	=	bilingüismo
<i>Etorbide</i>	=	avenida
<i>Txaide</i>	=	calle
<i>Bultzi</i>	=	tren
<i>Isun</i>	=	multa
<i>Kutsadura</i>	=	contaminación
<i>Aolku</i>	=	consejo
<i>Zabalkunde</i>	=	propaganda
<i>Ziarduen</i>	=	estaban haciendo
<i>Norabide</i>	=	destino
<i>Ergelkeri</i>	=	tonteía

## IZKI-ZUKUA

N E R I E B A D O N E K I A  
 E D U J N I J U P L Ñ A P U E  
 G E Ñ E A R T I B A I J O S U  
 T I R R U R I O N U G U T E J  
 A K I A N O R T U B E X O M A  
 G R E Z E U T A R A X T L A D  
 I U G U S B A Z T U A Ñ O D O  
 Z K A D P I K I X I M I Z L I  
 B E X I R S O M A Ñ A R I A B  
 A J U Ñ R A G I X U L E A G U  
 O T I M A K E A Ñ E L I M I A

Itz-zuku onetan Bizkai'ko lau ibairen izenak agertzen dira, zeintzuk dira? Erantzuna azkenengo orrialdean

# ABES-BATZEN ASTEA

Danok jakingo dozuen lez, izparringietan, irratietan eta telebistan agertu da-ta, epaillaren 16'gn amaitu da Bizkai'ko Abes-Batzen VI Astea.

Benetan ezin ukatu gizon oneen lana zoragarria dala, abes-batzen jakintza erriarenganatu naian.

Baiña Begoña'ko eleizan ikusi diran saioak! gertatuteko lan asko egin bear da, lan nekegarria... Ordu asko sartu bear, lo gitixi egin, eta osasuna galdu.

Ikusi dogunez, lanak bere frutuak emoten ditu, gozo-gozoak gaiñera.

Zorionak, zuoi, Aste onen antolatzailleroi!

\* \*

Barriak zeatzago jakiteko, antolatzailleroakana jo eta alkar-izketa txiki bat egin dogu eurakaz.

ZER: *Zelako asmoakaz zaree Aste onein eragille?*

ANT.: **Guk abes-batzen jakintza azaldu gura dogu, erriari jakin-azo, eta abes-batz bakoitzaren gertakizuna erakutsi.**

\* \* \*

ZER: *Ona datozen abes-batzak aurretiaz aukeratuak dira ala datozenak artzen dira?*

ANT.: **Ez ez dago ezelako autatzerik, iñor be ez dago aurretiaz aukeratuta, ateak zabalik dagoz etorri nai daben guztientzat.**

\* \* \*

ZER: *Zelako laguntzak daukazuez diru-aldetik abes-batzen gaztuak ordaintzeko?*

ANT.: **Aurten Lankide Aurrezki-Kutzak (Caja Laboral Popular) lagundu dasku alde batetik eta beste aldetik bertan eleizan batzen dan dirua. Kontuan artu bear da sarrerak duban dirala eta eleizan batzen dana bakoitzaren borondatea izaten dala.**

ZER: *Diru-aldetik ondo konpontzen zaree?*

ANT.: **Diru asko ez daukagu, baiña gas-tuak beteten dira. Naizta abes-batzen joan-etorriak garestiak izan, gure kontura dira, geuk ordaintzen doguz.**

\* \* \*

ZER: *Zelan erantzuten dau jenteak?*

ANT.: **Ikusi dan lez, eleizea beterik egon da egun guztietan eta orreri begiratzuz, gauza onetarako zaletasuna galduta dagoanik ezin daikegu esan. Diru-aldetik bakoitzak al dau-naga, laguntzen dau eta au da garrantzi-tsuena.**

\* \* --

ZER: *Zelan dago abes-batzen bikaintasuna? Agertu da urterik urtera aurrerapiderik?*

ANT.: **Bai. Urterik urtera obeto dagoz, gaiñera asmoak orreixek dira, obetzekoak, urtero mailla bat igon bear da.**

\* \* \*

ZER: *Iñoz asmatu dozue olako gauza bat Euzkadi-maillan egitea?*

ANT.: **Ez. Gipuzkoa'n egin zan zeozer olako bat, baiña gu ezin geinteke sartu olako gauza batera. Orregaitik gure lurraldeko maillan, au da, Bizkai'ko maillan egiten dogu lan.**

**Gaiñera Euzkadi-maillan antolatzeko arazo aundiak egongo litzakez, bai diru-aldetik eta bai antolaketa-aldetik.**

\* \*

ZER: *Aurrera begiratuaz, zeintzuk dira zuen asmoak?*

ANT.: **Jarraitu. Urtero abes-batzen aurre-rakuntzak erriaren aurrean ipiñi, abes-batzen musikearen zaletasuna galdu ez daiten, gu abeslariaren erria gara-ta.**

\* \* \*

ZER: *Eskerrik asko eta alan izan daitela uric askotan.*





# SAN ANTON ABESBATZA DALA TA EZ DALA

## BEGOÑA'RA EZ?

Epallak 6. Erri irratia entzuten nengoala, nire biotz gaixoak sekulako zartakada artu eban.

Erri irratiauk auxe esan eban: Euren arteko eztabaidak dirala ta, San Anton abesbatzak ez dau parte artuko Begoña'ko elizan atondu dan abesbatzen ekin aldian.

Gau guztia loak artu ezinda igaro neban. Zer jaso ete da, niñoa neure kautan.

\* \* \*

## ARINKERIA

Zer jasoten jako gure antxiñako abesbatz entzutetsuari? Gaur gauzak argitu dira.

Erri irrati ta izparringietan agertu zana, txarto ulertze bat baño ez zan izan, bai ta ez dakigu noren arinkeri bat here.

San Anton abesbatza Jaunari eskerrak, aurre-ra doa.

Abesbatz onetan beste alkarte ta erakunde guztietan lez here tiki-mikiak izan dira, batez bere bein, orregaitik banandu ta JATORKI abesbatz ederrak urten ebanean; baña San Anton abesbatzak indartuaz lan ederra egiten jarraitu dau.

Ostopo guztiak gaintitu ta beti aurrera egin dau.

\* \* \*

Ortik eta emendik itaunka daukaguz asko ta asko: Baña zer jaso da?

Nire erantzuna: arinkeri txiki bat baño ez.

Baña abesbatzeko danak dakie garaikundea, alkartasun eta iraupenean oiñarrirituten dala, ez norberekeri, arinkeri ta ziztrinkerian.

\* \* \*

## NORTASUNA

Orain San Anton abesbatzak bere nortasun eta buru-jabetza dauka; baña aldi baten, euskal kutsuko gauzak sortzea zigortua zanean, abesbatz au San Anton parrokiaren babespean jaio ta indartu zan.

Orregaitik alkarte orretan agindu cz arren, barru barrutik maite dogu emen eta bere entzute ona zaindu nai dogu.

Abesbatz onek euskal eresi ta euskal jakintzaren alde egin dauan lana oso goragarria da.

Emendik aurrera be lan orretan jarrai dagiala nai dogu, politika ta beste arazoetako eritxi ez bardiñak izan arren bazkideen artean, abesbatzari dagokiozan elburu ta eginbearretan oso elkar-turik jarraituaz.

\* \* \*

## ERESERKIA

Or doa abesbatz onek 25 urte betetean egin jakon ereserkitxua:

San Antoneko gela zar baten jaio zan landar kaxkarra orain zugatz au aundi biur da badau beragan indarra

Biotz mordoxka ameslariak siñimentsu sortu eben Euren kemen ta irautasunez abesbatz eder da emen

Ekin ta lanez neska mutillak anai lez maitasunean euskal abesti zabaldu dabe indartsu gure errian

Zoragarri da euren abesti elizkizun liturgian Antzoki, irrati, enparantzetan euskal erri mendietan.

Bizkai aldean goren gorengo, danon artean entzute landara eder indartsu dago urrin beragandik ilte.

Bere altzoan ainbat ezkontza argi ta garbi ein dira eurak guztiak mendi zaleak edertuz euskal erria.

Jauna lagun ta bai Andra Mari Begoña'n dagon izarra onuratsua Euzkadirentzat. abesbatz onen bearra

Olango talde asko geituz gure gazteen artean euskal erriak jakintza bizi zintzotasuna danean.

Lerro oneik idatzi ditut, or jaso dan gauza txikitxuagaitik batzuk abesbatz orreri entzute ona kentzen alegindu diralako.

## ELKANO

Berrogeitairu urteko gizon eldua zan Elkano, i\l'agallanes'en itsas ontzidian sartu zanean. Itsasoak autsiak ebazan ordurako Getari'ko seme onek.

Arrantzale seme, arrantzale izan zan berau be, gaztetan. Eta ur andiko arrantzale. Terranoba'ra joan oi zan makauullutan. Gero arrantzu orretan aurreratutako diruaz, itsasontzi der bat erosi eban. Ontzi orregaz zer egingo..., ta merkataritzari ezetsiz, Gastelarrak erioen itsasgudatan sartu zan. An egoan bera Aprikako Oran, Bujia ta Tripoli itsas uri ederrak menperatuak izan ziranean.

Gero, «El Gran Capitan» deitutako gudalburuaren agindupean ibilli zan Italiko gerratetan, bere itsasontzigaz beti. Azken baten, here ontzi ta mutillak galdu, ta Magallanes'en txangoari lotu zan, ez diru ta ez lagun.

### **MAGALLANES'EN ATAKA**

Ataka au topetan izen ebezan naiko lan. Magallanes'ek, berak baekiela aren bidea esan eutsen mutillai. Baiña, dana guzurra. Jo batera, jo bestera, ta dana alperrik. Bost ontzi eukazan beregaz Magallanes'ek, eta iru ontziko mariñelak asaldu egin yakozan.

Itz zuriz baretu ebazan buruzagiak. Baiñaseskuetara ebazaneko, batzuk il, beste batzu ango lur izoztuetan itzi, eta katez lotuta euki ebazan gaiñerakoak ontzi ondatuak konpontzen. Azkeneko onein artean egoan «La Concepción» izeneko ontziburu zan Elkano be.

Ontziak konpondu, ta itsasora bezain laster, ekatx batek jo, ta sakabanatu ebazan ontzi guztiak.

Andik iru egunetara baretu zan itsasoa. Eta iru ontzi bakarrik eurenagatu ebazan Magallanes'ek. Urrango egunean agertu ziran beste biak. Elkano etorren aurrelari alai eta pozkor. Aurkitu barri eban Atlantik eta Pazifik itsasoak alkartzen ebazan zorioneko ataka.

### **MOLUKAS'EN**

Ez zan xamurra izan Pazifik itsaso barriko txangoa. Len, otz-bero larriak; ta sekulalo gosetea, orain, Gosetea ta izurritea. Janezak sorturiko eskorbut izeneko izurrite edo gatxa etorri yaken, eta asko it ziran bidean. Urte terdi ondoren iritxi ziran Filipinas'tara.

Filipinas'en, ango basatiaz gerran asi zan Magallanes, eta arein eskuetan it zan. Elkano izendatu eben, orduan, mariñelak euren burutzat. Eta gerazen yakozan iru ontziak konpondu ondoren, Molukas deitutako ugartetara jo eban, zuzen-zuzen.

Ugarte oneik ziran txangoaren jomuga. Piperki, untze ta kanela onkailluen lurraldea zan. Ondo etorri zan bertoko basatiaz. Txarto, ostera, eure ontziagaz. «Victoria» eritxon ontzi bakarra, urrea baiño geiago balio eben, onkailluz goragiño bete, ta etxera abiatu zan.

### **ITZULERA**

Indiako itsasotik abiatu zan, eta Aprikako sortaldera jo eban. Aprikari bira emonda, «Cabo Verde» izeneko ugartean geratu zan, jan eske. Portugaldarrena zan ugartea. Eta oneik ontzia jangaiez beteten ziarduela, bertan ekarren onkailluz oartu, ta atxillo artu nai eben Elkano.

Onek baiña, arraunai eragin, ta itsas zabalera jo eban. Alan here, an geratu ziran betiko eurentariko mutil batzu, Portugaldarreak atxituta.

Andik egun batzutara eldu zan, Sanlucar de Barrameda deitutako kaiara. Andik urtena zan, ain zuzen bere, 1519'garrenean, beste 237 lagunagaz. Eta iru urte buruan etorren 21 lagunegaz.

Sekulako ondo etorria egin eutsoen erriak eta erregek. Karlo I erregeak egin, batez bere. Eta txango luzearen zertzelada guztiak entzun ondoren, armarri edo ezkutu bereizi au eskindu eutson:

Urrezko gaztelu bat eukan, goikaldean; onkaillu landaraz jantzitako landatxea, bekaldean; lurbira, goiko buruan; eta idazki au, aren gerrian: «Primus circumdedisti me», zuk emon daustazu lengo itzuli osoa.

### **ITSASORA, BARRIRO**

Molukas'ko onkaillu baiotsu orreik galdu nai ez, eta beste txango bat gertau eban erregek, zazpi itsasontzi ta 450 gizonagaz. Loaysa andikitar aberatsa aukeratu eban len agintari, eta gure Elkano aren urrangoa.

Lengo bide ta lengo ekatxak izan ebezen arakoan. Magallanes ataka igarotzean izan eben ekatxik gogorrena. Sekulako olatuk altxa ziran, bat-batean, ataka estuan, eta alboko atxetara jaurti ebazan ontzixka ariñak.

Doi-doi urten andik, gizonak akiturik, ontziak ondaturik, eta jangaiek galdurik. Laster sortu zan gosetea here; eta eskorbut izurria, aren ondoren. Eta Loaysa agintaria bere geixotu zan, azken baten. Geixotu, ta andik egun batzutara il.

Elkano jarri zan, urren, itsasontzidiaren buruzagi. Egun gutxitarako, zoritxarrez. Andik laster au bere geixotu, ta arin egin eban onek here azken gaizto. Eta ainbat maite izan ebazan ur aindi areik artu eben euren magalean Elkano andiaren grupua.

## MIESA NEURTZEN ALA...?

### PINUETA'KO BASERRIAN

Jesukristo, mundu onetan ebillelarik, Piñueta eritxon baserrira elduta, atea joaz, gau aretako legorra eskatu eban.

Eta etxeakoandreak, erromes, edo eskale edota alan olango zerbait izango zalakoan, ez eutson emon gure izan. Eta auxe esan eutson:

Goiko Pagoeta baserri orretan, artzen dabez zu lango gizonak.

### PAGOETA'ko BASERRIAN

Ara elduta, legorra eskatu ebaneko, atea zabal-zabal egin, eta etxe maira eroan eben. Aparia, oea, ta biaramoneko gosaria bere emon eutsoen.

Eta Jesukristok eskerrak emon ondoren, eratsiki eutsen:

—Eta auxe eskatzen dautsot Jainkoari, enetxoak: zuok goizean asitako lanak illuntzeraiño iraun dagiala.

### MIESA

Jesukristo etxe aretatik urten zaneke, itzok esan ebazan bertoko etxejoaunak:

—Lengo egunean ekarritako miesa polit a neurtu bear yoagu, mutillok !

Eta etxe aretako guztiak miesa edo eun a neurtzen asi ziran. Neurtu ta neurtu, arratseraiño iraun eban lan orrek; eta miesa eder luzeaz bete eben etxe guztia.

Auzokoak, alango miesketa ederra ikusita, galde ta galde ziaurduen alkarri:

—Nundik-nora atara ete debe Pagoetarrok olango miesketa izugarri ori?

### PIÑUETA BASERRIKO ETXEKOANDREAREN ZURIKERIA

Laster bere zabaldu zan, etxerik etxe, an gertaturiko arrigarri a. Eta Jesukristori legorrik emon ez eutson etxeakoandre arek esan eban ezpanak zimurturik:

—Ozpín amurratua! Orra or, neuretzat bear neuken miesketa ori! Gizon ori, barriro baletorkit, ez dot ez, legor barik itxiko; ez orixe!

Urte baten buruan, orra or lengo gizon bera, gaueko legorraren eske, barriro be. Etxekoandre zikotz orrek lenego erromes a bereala ezagutu, eta bere egonlekutik zutiturik, etxean artu eban pozik, itz zuri ta bigunak ezpanetan.

Apari ederra, oe zuria ta gosari gozoa emon, eta Pagoeta, beste baserri aretan jalkitako itz berak entzungo ebazalakoan egoan geure etxeakoandre maratza. Eta alan gertatu:

—Eta auxe eskatzen dautsot Jainkoari: zuok asitako lanak illuntzeraiño iraun dagiala.

### ZERI ELDU...?

—Eta zeri lotuko gozak mutillok, oiú egin eutzen pozkor etxeakoandreak bure etxeoai. Piñuak neurtzen-erantzun eutson senarrak.

—Ez, ez —esan eban barriro etxeakoandreak—. Or nik kutxan jasorik daukazadan aontzurre zarrap kontatzen bear yoagu egun oso au emon.

—Nundik jaso doguz, bada, ontz-urreoip, geure or goiko piduditik izan ezik...?

—Alan dop bai, senarko !

—Asi gaitazan, bada; eztabaida zozoko onetan, ainbeste beta galdu barik.

—Asi gaitazan, bada!

—Bai, baiña..., gauzatxo bat oindiño, ene andretxo !

—Oindiño geiago, senarko? Eguna aurrera, ta gu eskutsik... Zer asmau dok, bada, ik prakaundi?

—Danok, beko kortara jaiختهكو !

—Zertara, baiña... ?

—Ba..., geure zerak, geure gorputzeko zera orreik, utsaldi gazti orreik, beingo baten egiteko, gerorako itxi barik...

—Ez yagok txarto esana! Ori bururakizuna, senarko ! Ez neban ez nik, ezkondu nintzan goizean, piñuaen arzken abarra artu... !

### ZEREGIN BITXIA

Jaitxi ziran, bada, kortara etxe guztiak... Jaitxi zan ama, jaitxi zan aita, jaitzi ziran seme-alabak. Baita bakotzak bere txoko berezia aukeratu bere. Eta euren barru beteak utsituten asi ziran danok batera.

Asi ta segi...; segi ta jarrai..., arratsalderaiño iraun eban lan bitxi orrek.

# IPARRALDERA ALKARRIZKETAKO

## UMANDI'REN BILLA

*EUSKERAZAINTZA*'ren izenean Euzkadi'ren Iparraldera osterea egin dogu ango euskalzaleakaz berba egiteko ustez, Aita Santi Onaindia'k eta biok.

Goizeko 9'retan urten giñan Larra'ko lekaidetxetik eta geure arteko alkarrizketa beroan eldu giñan mugara.

Lenengo, eta egunerako egitaraua bertan gertatzeko ustez, Umandi'ren. etxera jo genduan, Baiona'ko eleiz-ondora. Baiña gure Umandi ez egoan etxean. Ba-genkian astean egun batzuk Parisen igaroten dituana, baiña eskutitza egin geuntsan gure ikustaldia aurretiaz oartuz. Antza, ez eban artu. Frantzia'ra doazan eskutitzak egun asko bear izaten dabez. Nork jakin zergaitik.

## PIERRE LAFITTE'GAZ

Baiona'tik Urtaritz'era joan giñan eta an Abade-gai-  
etxe Txikira. Antxe bizi da gure Pierre Lafitte abade ospetsua. Euskaltzaindi'koa.

Irurogeta zortzi urte daukaz Lafitte'k eta oso zar aurkitu dogu. Bere lanak itzita dagoala esan euskun, baiña idazten ekiten dauala jo ta ke.

Eguerdia be-ba-zan eta ez eukan asti aundirik berba egiteko, bere maikideak jateko itxaroten eukazan eta.

Euskerazaintza'ren elburua, euskalkiak indartzea, agertu geuntsanean zerbait ba-ekiala eta alkar «urbil-tzeko» bideak artu bear ziralara esan euskun, batez be. Geroago joatea nai eban, astiroago berba egiteko, baiña geuk be egun betea geunkan eta ezin genduan gerorako itzi alkar-izketa luzeago ori. Maitekero agur egin eta geure bideari jarraitu geuntsan.



Bellok, Beneditarren Monastegia, otoitz eta euskera eskola

## IRATZEDER'EGAZ

Uztaritz'etik Azparren'era urreratu giñan eta andik Beraskoitz'era. Erri onetan eta mendi-gain eder baten beste ikustaldi gogoangarri bat egin genduan: AMA LUR izena daukan ostatu batera. Robles-Arangiz'tarrak dira ango ugazaba eta antxe aurkitu genduan aita bere semeagaz eta Estitxu abeslari ospetsua dan alabeagaz. Egotaldi pozgarria benetan.

Urrengo Bellok'era eta emen IRATZEDER abata agurtu genduan: Lekaide apala ta ona, euskalzale ezaguna.

*EUSKERAZAINTZA*'ren amesak eta gure artean Iparralde'ko jentea be gura genduala agertu geuntsan oneri be. Izen batzuk gogoratu genduzan eta bere aldetik ez dagola iñoren aurka esan euskun, baiña bere jokabidea ebazteko, len bera dagon taldeagaz mintzatu bear zala. Ondo eritxi geuntsan bere jokabideari eta, edozelan be, gure ekintzara sartu nai izatea ez dala iñolaz adiskide izateko baldintza esan geuntsan.

## BAZTAN-ALDERA

Arratsaldea orain laburra be ba-da ta, Dantzarinea' rako bidea artu genduan etxerantza etorteko. Bidean ikusi genduan Axular'en etxea. Gero Baztan Ibar polita.

Egualdi ederra egin euskun baiña Baztan-inguruan euria egiten eban eta arrezkero, trun'go autobidez atxeratu arte, ez zan aterrik izan. Gabeko 9'rak ziran eldu giñanean.

## ONDORENAK

- Ikustaldi onetatik atera doguzan ondorenak oneik dira:
- Iparraldekoak benetan maite ditue euren euskalkiak, eta batua artzekotan «emeki-emeki» artzen dabe. Onetan zuberu'tarrak dira sendoenak, eurena maitatzen esan gura dot.
  - Iparraldekoai guri baiño be gatxago egiten, ake batua. Ez dabe ulertzen obeto.
  - Egoaldeko asmakizunetan sartzeko gogo aundirik ez dauke, baiña bai euskalkiai eusteko. Euskerazaintza'ren gogotik ur dagozela esan lei.
  - Ango euskalkiak ulertzea ez da ain gaitxa emengoak ezagutu ezkerro. Eurakaz alkar-izketea erreza izan zan gutzat.
  - Areik eta guk alkartuta, euskera bizia erriaren euskerea, aurrera atera bear dogu.

**OLAZAR'tar Martin'ek**

# EUSKERAZALEAK

## NORENTZAT?

Gure mintzaira, izkuntza, berbetea —gure arbasoena be bai—, euskerea izan da betidanik. Laubost euskalkiz edo, osotua. Euskera bat eta bakarra.

\* \* \*

Aldi ontan beti-betikoa ta besterik be ba-dogu: Batua deritzona.

Eta deritzon ori egin bearraren eginbearraz, lengoz gain bi geiago egiten diardugu: Oiñarrizkoa ta...

\* \* \*

Oiñarrizkoa esateak ba, bestelakoren bat be, bizi dala, bizi dalakoa edo... zerbait adierazoten dausku: Oiñarrige bat be ba-dagola.

\* \* \*

Eta oiñarrizkoa ez dan bestelako ori, arauzko lokarrietatik «libroki» ibili eta luma bakoitzaren gogo ta atsegiñezko anarkieran idaztekoa dan ori, norentzat?

\* \* \*

Gipuzkeraz, zuberoraz, lapurdieraz —idatzizkoa—, errez-samar menperatzen dodaz, baiña goren go galgako idazle batzuek damoskuezan zenbait lanetatik, ez tutik ez zipitzik ezin jaso.

\* \* \*

Nazan lako ezjakin txatxarra neu besterik ez ballitz, gaitz-erdi; asko dira baiña ni baiño goragotik dabiltzanak, ni lexe barau egin-bearrera beartuak.

\* \* \*

Otsaillaren 4'gn. egunean, eguerdiz, iru Azparren'dar pelota-jokoa ikusguran.

DEIA erosi genduan.

Gernika aukeratu eben jokaldia ikusteko.

DEIA'k ekarren euskerea ulergaitza zan Azparren'dar areintzako.

Norentzat da «batua» izeneko ori? Norentzat?


**LANDAJUELA'tar A'k**

## IZKI-ZUKUAREN ERANTZUNA

N	E	R	I	E	B	A	D	O	N	E	K	I	A	
E	D	U	J	N	I	J	U	P	L	Ñ	A	P	U	E
G	E	Ñ	E	A	R	T	I	B	A	I	J	O	S	U
T	I	R	R	U	R	I	O	N	U	G	U	T	E	J
A	K	I	A	N	O	R	T	U	B	E	X	O	M	A
G	R	E	Z	E	U	T	A	R	A	X	T	L	A	D
I	U	G	U	S	B	A	Z	T	U	A	Ñ	O	D	O
Z	K	A	D	P	I	K	I	X	I	M	I	Z	L	I
B	E	X	I	R	S	O	M	A	Ñ	A	R	I	A	B
A	J	U	Ñ	R	A	G	I	X	U	L	E	A	G	U
O	T	I	M	A	K	E	A	Ñ	E	L	I	M	I	A

# ZER

Colón de Larretégui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1



## 70 urte Bizkaiari laguntzen



**CAJA DE AHORROS**   
**MUNICIPAL DE BILBAO**

ONDO ERANTZUTEN DAU